

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2013KO IRAILAREN
13A**

BERTARATU DIRENAK:

- **Lehendakaria**
- **Arantza Tapia andere txit gorena**
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO
SAILBURUA
- **Ricardo Gatzagaetxebarria jaun txit gorena**
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUA
- **Cristina Uriarte andere txit gorena**
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO
SAILBURUA
- **Jon Darpon jaun txit gorena**
OSASUNEKO SAILBURUA
- **José Luis Bilbao jaun txit gorena**
BIZKAIKO DIPUTATU NAGUSIA
- **Martín Garitano jaun txit gorena**
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA
- **José Zurita Laguna jaun txit argia**
ARABAKO EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU
ADMINISTRAZIOAREN DIPUTATUA
- **Iñaki Goirizelaia jaun txit gorena**
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA
- **Jose M^a Gibert jaun txit gorena**
DEUSTO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA
- **Josu Zabala jaun txit gorena**
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA
- **Fernando Cossío jauna**
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA
- **Alberto García Erauzkin jauna (gonbidatu moduan)**
INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA (irailaren 30ean izendatzekoa)
- **Jesús Peña Martínez jauna**
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

GAI-ZERRENDA

1. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren azken bi bileren aktak (2011-11-22 eta 2012-07-11) irakurtzea eta, bidezkoa izanez gero, onestea.
2. Zientzia eta Teknologiako Euskal Kontseilu berria eratzea.
3. Kontseiluko Idazkaritza Teknikoa izendatzeko proposamena.
4. Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kideak nor izan daitezkeen baloratzea.
5. Politika zientifiko eta teknologikoaren norabide berria.
6. 1/2007 Dekretua eguneratzeko proposamenak
7. Eskakerak eta galderak.

1. PUNTUA: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren azken bi bileren aktak (2011-11-22 eta 2012-07-11) irakurtzea eta, bidezkoa izanez gero, onestea.

Lehendakariak jakinarazi duenez, aurreko Jaurlaritzak bi akta entregatu zizkigun, idatzita eta onetsi gabe. Horiek onesteko erabakia, bilera horietan egon ziren kideek hartu behar dute. Komentatu duenez, akats bat zuzendu behar da 2011-11-22ko bileraren aktan, 2010-07-21ean egindako bileraren datari buruz.

ERABAKIA:

“2011-11-22ko eta 2012-07-11ko bileren aktak onestea, bilera horietan egon ziren pertsonen aldeko botoarekin eta gainerako pertsonen abstentzioarekin”.

2. PUNTUA: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilu berria eratzea: Kargu-uzteak eta Izendapenak.

Lehendakariak 1/2007 Dekretua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua sortzen duena, aipatu du. Horri dagokionez, beren-beregi aipatu du 4. artikulua:

“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren kide duten karguarengatik direnek automatikoki utziko diote kide izateari, kide izendatuak izateko kontuan izandako ezaugarri hori galtzen dutenean”.

ERABAKIA:

Honako pertsona hauen kargu-uzteak onestea:

- Isabel Celaá andrea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua
- Carlos Aguirre Arana jauna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburua
- Bernabé Unda jauna, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua
- Rafael Bengoa jauna, Osasun eta Kontsumoko sailburua

- *Guillermo Ulacia jauna, Innobasque-ko lehendakaria*
- *Jaime Oraá jauna, Deustuko Unibertsitateko errektorea.*

Honako izendapen hauek onestea:

- *Arantza Tapia andrea, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua*
- *Ricardo Gatzagaetxebarria jauna, Ogasun eta Finantzetako sailburua*
- *Cristina Uriarte andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua*
- *Jon Darpon jauna, Osasuneko sailburua*
- *Alberto García Erauskin jauna, (ondorioak irailaren 30etik aurrera sortuko dira)*
- *José M^a Gibert jauna, Deustuko Unibertsitateko errektorea*

3. PUNTUA: Kontseiluko Idazkaritza Teknikoa izendatzeko proposamena

Lehendakariak 1/2007 Dekretuaren 6. artikulua aipatu du. Artikulu horrek dioenez: “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkaria, Lehendakariak izendatuko duena, Kontseiluko idazkari izango da. Bere eginkizunak garatzeko, Idazkaritza Teknikoa izango du” (6. artikulua, 5. puntua)

Lehendakariak gogorarazi duenez, figura hori egon ez denez, Kontseiluko idazkariaren eginkizunak VIII. legegintzaldian Pedro Luis Uriarteri, Innobasque-ko lehendakariari, agindu zitzaizkion, eta Idazkaritza Teknikoaz Innobasque Agentzia bera arduratu zen.

IX. legegintzaldian Kontseiluko idazkariaren eginkizunak Lehendakariatzako idazkari nagusiak hartu zituen bere gain, eta Innobasque-ren laguntza izan zuen Idazkaritza Tekniko gisa.

ERABAKIA:

“Jesús Peña jauna, Lehendakariatzako idazkari nagusia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko idazkari izendatzea. 6.5 artikuluan aurreikusita dagoenez, Idazkaritza Teknikoaren laguntza izateko, proposatzen da Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak Idazkaritza Teknikoari dagozkion eginkizunak bete ditzala”.

4. PUNTUA: Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kideak nor izan daitezkeen baloratzea

Puntu horri buruz, Lehendakariak gogora ekarri duenez, 7. eta 9. puntuek aurreikusten dute Aholkularitza Batzorde Zientifikoa izendatu ahal dela, eta batzorde hori gehienez 10 pertsonak osatu ahal dutela.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren lehenengo etaparen ostean, Lehendakariaren ustez egokia da ekarpenetarako prozesu bat hastea, eta prozesu horren amaieran arrazoizko epe batean Batzorde hori izendatu ahal izatea.

1/2007 Dekretuaren arabera, honako erabaki hau hartzen da:

ERABAKIA:

“Lehendakariak Aholkularitza Batzorde Zientifikoko hamar kideak izendatzeko ahalmena du. Xede horrekin, Kontseiluko kideei eskatzen die urrian eta azaroan iradokizunak igor ditzatela izangaiei buruz, Kontseiluaren hurrengo bileran barneko balorazioa egiteko”.

5. PUNTUA: **Politika zientifiko eta teknologikoaren norabide berria**

Lehendakariaren ustez, gaur egungo 2015 ZTBP berriro formulatu behar da, errealak ez diren aurreikuspen ekonomiko batzuetan oinarritzen delako.

- BPG nominala 2012an +% 3,6 igotzea aurreikusi da; 2013an, berriz, +% 4,1; 2014an % 4,5; eta 2015ean % 4,4; igoera horiek oraingoz ez dira bete, eta berrikusi behar dira.
- Finantzaketa pribatuko baliabide gero eta handiagoak, 2012ko 830 MM eurotatik (osoaren % 56) 2015eko 1.480 MM-etara igaro behar ziren (osoaren % 62), baina hori ez da bete, eta berrikusi behar da.
- Berrikuntzako funts estrategikoaren zenbatekoa 2008-2010 epealdian 40 milioi euro izan zen, eta 2012-2016 horizontean igoera metakor etengabea planteatu zen; hona hemen:
 - 70 milioi 2012an
 - 100 milioi 2013an
 - 140 milioi 2014an
 - 180 milioi 2015eanEkarpenak honela banatzen dira: % 85 Eusko Jaurlaritzarenak eta % 15 Aldundienak, eta hori berrikusi behar da.
- Ikerketako proiektu estrategiko berriak planteatzen dira, eta gaur egun halako proiektuak gauzatzea ekonomiaren ikuspegitik bideraezina dela uste da.

Beste alde batetik, planteamenduaren oinarri diren ildo estrategikoetan ez da behar bezala kontuan hartzen RIS3 Espezializazio Adimentsuko Europako estrategia berrian (Research and Innovation Smart Specialization Strategy) eskatzen den fokalizazioa.

Jarraian Arantza Tapia sailburuari eman dio hitza. Hark norabide berriaren azalpen orokorra eman du, eta Europako RIS3 estrategian norabide hori nola kokatzen den ere adierazi du. Sailburuak azaldu duenez, Europar Batasunaren orientabideei jarraikiz, sailarteko lehen zirriborro bat idazten ari da. Hori, 2015 ZTBP egokitzeko 1. fasea izango da, eta prozesua Orkestraren bitartez koordinatzen ari da.

Gero Cristina Uriarte sailburuak hartu du hitza. Unibertsitateko politika zientifikoaren norabide berria azaldu du, eta norabide hori Europako RIS3 estrategian nola txertatzen den ere bai. Bere iritziz, balio-kateko eragile guztien artean koordinazio handiagoa lortu behar da, Oinarritzko Ikerketatik Ikerketa Aplikaturaino. Horri dagokionez, zera azaldu du: Jaurlaritzak 2014an azpiegitura zientifikoaren mapa egingo du. Mapa horretan jasoko dira Ikerketako erakunde publikoak nahiz partaidetutako Ikerketa Erakundeak.

Puntu honetan hitza hartu dute EHUko eta Mondragon Unibertsitateko arduradunek eta Bizkaiko Ahaldu Nagusiak. Bakoitzak hainbat ekarpen egin du, honako honi buruz: Unibertsitateak 2015 ZTBP berriro formulatzen modu aktiboan parte hartzea egokia den, eta errealismo ekonomikoa aplikatzea eta ikerketaren ardatzean Euskadi nazioarteko erreferentzia izan daitekeen proiektu eta lan-ildoak jartzea beharrezkoa den.

Orokorrean, denak ados egon dira: 2015 ZTBP egokitzea beharrezkoa da, eta plana berriro formulatzen modu aktiboan laguntzeko asmoa erakutsi dute.

ERABAKIA:

“Gaur egungo 2015 ZTBP moldatzea, bere oinarriak eta aurreikuspen ekonomikoak gaur egungo errealitatera egokitzea eta bere ildo estrategikoak Politika Zientifiko eta Teknologikoaren norabide berriari egokitzea”. Gainerako eragileek egindako ekarpenak bideratuko ditu Idazkaritza Teknikoak.

6. PUNTUA: 1/2007 Dekretua eguneratzeko proposamenak

Lehendakariak esan duenez, 1/2007 Dekretua onetsi zenetik sei urte baino gehiago igaro direla, dekretua berriro irakurri behar da, eta beharrezkoa bada, eguneratu ere bai.

ERABAKIA:

“Kideek 1/2007 Dekretua berriro irakurtzea. Eguneratzeko proposamenak eta iradokizunak Kontseiluko idazkariari bidaltzea. Jasotako ekarpenekin, Jaurlaritzak aldaketa egokiak egingo ditu; aldaketa horiek Kontseiluaren hurrengo bileran aurkeztuko dira”.

7. PUNTUA: Eskaerak eta Galderak

Ez da eskaera edota galderarik egin.

KONTSEILUAREN HURRENGO BILERA

Lehendakariak Kontseiluaren beste bilera bat proposatu du. Bilera hori abenduko lehenengo astean egingo da, hilaren 4an –asteazkena–, 11:00etan.

Aztertzeke beste gairik ez dagoela, bilera amaitu da.

Jesús Peña Martínez
KONTSEILUKO IDAZKARIA